

# Herri lexikoaren formalizazio arazoak

*Iraide Iturri*

## ARAZOA ZEIN DA?

Askotan bizkaieraz idatzita dagoen testu bat esku artean hartzen dogunean, konturatzen gara aditza eta deklinabidea nahiko zainduta badagoz bere, lexikoak batuerantz jotzen dauala. Hori askotan gertatzen jaku, konturatu barik, eta horren azpian dagozan arrazoiak seguru antzean bat baino gehiago dira eta euren artean soziolinguistikoak sano garrantzitsuak baina, dana dala, badago ahaztu ezin dogun arazo handi bat: ez dogu jakiten geurea dan lexiko hori forma literariora pasatzen, hau da, ez dogu jakiten zelan idatzi.

Hori dala eta, gure euskeran eguneroko diran berba asko eta asko ez dira sekula gure idatzietan agertzen eta horren ondorioak honeek dira: alde batetik batzuetan momentu horretan egokiena dan berba erabili beharrean beste bat aukeratzen dogu eta holan aberastasuna eta matizazioa galtzen doguz. Eta beste aldetik, gure gizartea “forma literarioaren” gizarte bilakatu danez (telebista, egunkari eta abarri esker), berba horreetako batzuk galtzeko bidean dira.

Argi dago gure lexikoa erabiltzeko ahalegina egin behar dogula baina lehen aipatu dogunez, arazo asko dagoz gure lexikoa ez dago-eta batuerazkoa bezain finkatua. Hiztegegintzan gabiltzanok (Labayru hiztegia) bere oztopo bera daukagu eta konturatu gara arazoak oso ugariak eta mota guztietakoak dirala, beraz sailkapen bat egiten aha-legenduko gara eta taldeka aztertuko doguz: ortografikoak, ortografi-ko-fonetikoak, ortografiko-gramatikalak eta semantikoak. Beraz, hortxe joatzue gure sailkapena.

## ARAZO ORTOGRAFIKOAK

Arazo ortografiko hutsak ez dira arruntegiak, normalean fonetikagaz lotutakoak izaten dira baina batzuetan agertzen dira holango kasuak.

- Mendebaldean fonema txistukari batzuk ez doguzala bereizten-eta, izaten doguz duda batzuk hiztegian begiratuta konpontzen dogu-zanak baina batzuetan gure berbak ez dira hiztegian agertzen edo agertuta bere ez jaku argiegi geratzen, orduan agertzen jaku arazoeta-riko bat, zer egin behar dogu holango berbakaz?:

-*sidurri/zidurri* (arrasto, barri) “auzokoaren sidurririk bere ez da aspaldiko egunokaz

-*aloso/ alozo* (Azkue)(ondo) “aloso tolostu dozu arropea”

-*altziketu/altsiketu/altxiketu* (erdi lehortu, ura kendu)<sup>1</sup> “altziketu dira lehen garbitu dodazan frakak”.

-*singrin/zingrin* (argala, arteza, gorputz onekoa) “mutil singrina”

---

<sup>1</sup> Altzikatu berbea agertzen jaku hiztegieta bai, baina hiztegieta agertzen dana hau da: “1. Desilacharse la ropa.2. Dar un tajo a las castañas para que cuezan mejor.” (Azkue)

Gatxa izaten da jakitea berba honeek benetan hiztegitik kanpokoak ala hiztegian agertzen diran beste berba batzuen barianteak diran; askotan izaten dogun joera izaten da pentsatzea barriak dirala eta horrelakoetan bere kontuz ibili behar da eta ondo aditu.

- Banan edo lotuta idazteak bere hainbat burukomin emon deuskuz kasu batzuetan.

1. Alde batetik atzizkiak daukaguz:

-*bako*: “etxebako/etxe bako, eskolabako/eskola bako...”

-*lako/-laseko*: “zueklako/zuek lako, haieklaseko/haiek laseko...”

Batzuetan intuizioz jokatzen dogu eta lexikalizazio mailak emoten deusku lotuta edo bananduta jartzeko bidea:

lotuta: *susterbako, ganorabako, lotsabako...*

bananduta: *diru bako...* Graduazinoa edo beste elementuren bat sartu ezkerre tartean, duda gitxiago izaten dogu banatuta

iminteko: *diru asko bako, ume bat(en) lakoa...*

2. Dana dala, lexikalizazio maila zehaztea ez da beti gauza erreza eta segurua izaten.

Bestetik konposizioak:

“*jente-modu, esku-esker, euri-lanbro, zoroeperdi, lau txakur...*”

Baina konposizioaren barruan aparteko atala merezi dabe erdi lexikalizatuta dagozan esaldi zati edo berba sortek:

a) Aditzez osatutakoak:

*dan ginoan*: “ateak dan ginoan zabaldua itxi dauz.”

*ohidalango/ohidalez*: “ohidalez emon deuskue jaten.”

*gureztala*: “gureztala zapaldu deusat kaderea.”

*bidanbeste*: “ez dakit honek ume honek bidanbeste jaten dauan.”

*beadanmoduko*: “hori zure auzoko hori ez da beadanmodukoa.”

*gauzeztan*: “gauzeztan hutsa da, ez da gauza ezer egiteko.”

*guraiñe*: “guraiñe janda altxau zan mahaitik.”

b) *-ko* eta *rendunak*:

*bekosu, tripetakomin, burukomin, beianganean* (Otxolua)...

Hiztuna ez da kapaz izaten espresio horren azpian dagozan atalak bereizteko eta unidate moduan ikusten dauz, kasu batzuetan fazilagoa bada bere beste batzuetan gatxa izaten da horri forma literarioa topatzea.

Talde honetan ezin dogu ahaztu bizkaitarroi hainbeste zalantza sortzen deuskuzan zorigogorreko “bere” hori. Ez dogu jakiten zelan idatzi, *bere, be, ere*, eta duda ez dago bakarrik forma soiletan, adibidez: *bape/-re, ezerbez/-rez, ezpabe/-re, hatan be/-re...*

## ARAZO ORTOGRAFIKO-FONETIKOAK

Duda barik hauxe dogu talderik zabalena eta askotan arriskutsuena. Batzuetan zalantzak bokale edo kontsonante batek sortuak izaten dira, beste batzuetan, ostera, berba hain dago desitxuratuta, ez daki gu zein dan azpian dagoan forma. Holangoetan kontu handiz ibili behar dogu bariante hutsak, ezetariko tradiziobakoak, forma literaria pasatu barik hori da-eta daukagun arriskurik handienetariko bat.

• Forma desitxuratuak geroko itxita bokale eta kontsonanteek sortutako zalantzak aztertuko doguz.

1. Alde batetik bokalak ditugu.

a) Hemen bizkaitarren bereizgarri bat aipatu behar dogu, gure fonetismo nagusia edo agerikoena:  $A+A=EA$ . Eta fonetismo honek zalantza asko sortzen deuskuz idazten hasten garenean, adibidez, ez dogu jakiten zelan idatzi behar doguzan inongo hiztegitan agertzen ez diran:

*lapardea* (alamena) baina “laparda/laparde”  
*ikuskea* (edozer jaten ez dauana) “ikuska/ikuske”  
*basea egin* (salsatan busti) “basa/base”  
*bardea* (arbola adarra) “barda/barde”

- b) Beste batzuetan bokalak itxi edo idegi egiten dira inguruko kontsonante eta bokalen arabera:

*atera/atara*  
*bazterrak/baztarrak*  
*edegi/idegi/idigi*  
*eretxi/eritxi*  
*irukurtzi/irikurtzi/irakurtzi*  
*igordi/igurdi*  
*bihortu/bihurtu*  
*barrez/barriz*

Halango kasu askotan argibideak tradizioak emoten deuskuz eta kontu handiz ibili behar dogu gure egunero erabilerak itsutu ez gaitzan. *Atera/atara* kasuan, adibidez, guretzat gaur egun *atara* oso normala bada ere, ez dogu ahaztu behar tradizio idatzian bertan bere *atera* izan dala oraintsura arte.

Beste kasu batzuetan, ostera, gauzak ez dagoz hain argi eta batzuetan batueraz erabiltzen dan forma zaharragotzat jo arren, gure bariante horrek beste ñabardura semantiko bat hartu edo adieretari-ko bat indartu dauala. Horren adierazgarri doguz:

-*bihortu/bihurtu*. bizkaieraz bihurtu batez bere “retorcer” esateko erabiltzen dogu, adibidez: “sorkia ondo bihurtu behar dozu mahaia garbituteko”

-*barrez/barriz*. bizkaieraz oso normalak dira holango esaldiak: “galdu egin dot boligrafoa, ez, ez, Josuri emon deusat barrez”

Holango kasuetan gatxa izaten da guretzat forma estandarrera

jotea. Halan eta guztiz bere, dudazko beste kasu asko geratzen dira hor, eta askotan zertara ezean egoten gara.

2. Bokalen arazoa handia bada, kontsonanteena ez da txikerragoa.

Hor bere, duda mota bat baino gehiago aurkitu geinkez:

a) Euskera osoan hain normalak diran T/D, M/B...:

*arbin/armin*

*tringil/dringil*

*dandai/tantai*

*suguntxile/suruntxile*

*garrikeda/garrikera*

Zalantza honeek bere normal normalak dira eta batzuetan hiztegi-ra jo eta halan konpontzen dogu arazoa, beste batzuetan, barriz, ez da hain erreza izaten forma hori ez baita hiztegian agertuten eta barian-teak era guztietakoak izaten baitira herri batetik bestera edo herri batean bertan bere.

b) Hizkuntza gehienetan bezala geurean bere bustidurak eragin itzela dauka:

*elexa/elixa/eleiza*

*haxe/haize*

*lexar/lezar*

*ixetu/izetu*

*maxtu/maiztu/maiestu*

*itxartu/ixartu//itzarrik/ixarrik*

*bearritxe/bearrite* (behar egite?)

Seigarren bikote hau berezi berezia da *itxartu/ixarturen* artean *itxartu* dago-eta forma literariorako hartuta eta *itzarrik/ixarriken* artean *itzarrik*, ikusten dogunez batean tx eta bestea tz.

Dana dala, kasu askotan ez jaku arazo larriegirik agertzen, hiztegia edo logika apur bat erabilia atera geinke forma literarioa baina beste

batzuetan arazoa larriago izaten da eta bustiduraren eraginez berbea nahiko desitxuratuta geratzen jaku, izan bere, batzuetan gatxa izaten da berbea identifikatzea:

*garitteko* (garaitiko)

*zittel* (zital)

*argisartzittea* (argisartzaitea)

Bigarren kasuan adibidez, hiztun arrunt bati ez jako burutik pasatu bere egiten *zittel* hori eta hainbestetan ikusi eta entzun dauan batuerazko *zital* berbea, berba bera diranik. Batetik fonetikoki nahiko ezbardinak direlako eta bestetik esangurea bera bere ez dalako bardin-bardina, *zittel* ek (Mungialdean behintzat) *zirikatzaile* esangura dau. Beraz, identifikatzeko arazoak agertzen dira eta identifikatuta bere zalantza asko.

Hirugarren adibidea *argisartzittea* (olatako meza) ilunagoa dogu. Berba horren azpian zer dagoen jakitea ez da erreza, baina emoten dau inguru horretan aditz batzuek azarabilten dan nominalizazio berezi baten beste adibide bat dogula:

(h)artzian (hartzean), batzian (batzean), sartzian (sartzean)...

Hiztun horrentzat forma hori, daukan bustidura horrekin identifikaezina da eta idatziz, seguru antzean, berarena barik *olatako meza* edo hiztegiko beste formaren bat erabiliko leuke.

- Baina aldaketa guztiak ezin doguz identifikatu eta batzuetan eginahalak eginda bere, ezinean ibiltzen gara berba horreek zelan edo halan idazteko, eta hainbat dira. Batzuetan ez dogu jakiten nondik datozen, beste batzuetan duda izaten dogu eta gehienetan zoritxarrez biderik errezena aukeratzen dogu, beste bat erabiltea. Hementxe daukaguz hainbeste arazo emoten deuskuezan berba horietariko batzuk:

*ondiñokarren*

*honetagiñoko/horretagiñoko/hatagiñoko*

*astraka* (azterka?)

*aurretixik* (aurretixek, aurretikxe)

*okatx*

*jentelasie*

*(ito...) bañik...* (aglinik)

Asko dira eta nahiko diferenteak, batzuek aldaketa fonetikoak jaso dabez (itxidurak, irekidurak, metatesiak...) beste batzuk erabilera zaharrak dira, gaur identifikatzen ez doguzanak, batez bere batuerak ez dauzalako identifikatzen. Eta gehienetan argibidea tradizioan egoten da, hurreko autoreetan: Añibarro, Zabala...

Hor itzelezko aberastasuna daukagu oraindik eta penagarria da idatzi ezin horrek berba honeei jartzen deutsien muga; geuk ez doguz erabilten idazteko eta besteek ez daukie aukerarik ezagutzeko, ondo-rioa agerikoa da: asko eta asko desagertzeko bidean dagoz.

## ARAZO ORTOGRAFIKO-GRAMATIKALAK

Honeek arazook sailkatzea gatxa da eta azalpen luzeago eta hobe beharko leuke arlo honek baina gurea lexikogintza danez, behar horretan agertu jakuzan zalantza batzuen deskribapena baino ez deusuegu egingo.

- Batueraz *bere/beraren* artean<sup>2</sup> egiten dan bereizketa dala-eta, bizkaieraz idazten dogunean nahiko arduratuta egoten gara guk daukagun elementu generalagaz: *beran*. Orduan, esaldi honeek bereiztu behar dira?:

---

<sup>2</sup> *Bere* elemento reflexiboa da: hark bere eskuak garbitu zituen. Eta *beraren* anaforikoa, hau da, aipatutakoari egiten deutso erreferentzia: Noren liburua hartu dozu, zurea ala Andonirena? nirea ez berarena.



“Bakotxak hartu dagiala berana”

“Nik ez dot zurea hartu, berana baino”

Antza danez, *berare*ren laburpena da, baina *bere?* erabili behar da? forma horrek biak hartzen dauz?

• Hiztegitan agertu jakuzan pospozizio berezi bi bere hemen-txe daukazuez:

1. *-tik/rik hara*: “alborik ara/era igertan jako gehien sudurra”  
“gaur pelukeritik ara/era etorri da Josune”  
“honeek frakok garbirik ara/era jantzi dodaz”

Ikusten dogunez pospozizio honen esangurea sano berezia da eta nahiko zabal dabil Bizkaian, baina erabilten dauan jendeak nekez erabilten dau idatziz; alde batetik lehen aipatu dogun bezala kostatu egiten jakulako espresio horren barruan dagozan atalak bereiztea eta bestetik ez dogulako lar argi izaten zelan dan *-tik* edo *-rik*. Badakigu *-rik* forma zaharragoa dala, eta adibide argiak daukaguz: “atxinerik, ordu-rik hona...”, baina zalantza hor dago batez bere berbak barriak diranean, zer imini behar dogu: pelukeririk edo pelukeritik?

2. *-(r)en gañe/añe*: “gaurko umeak ez daukie txakurren gañe errespeto”

Hamakatxu bider amari entzundako esaldi hau idazteko hainbat zalantza eta oztopo izan dodaz. Eta galdera argia da: “gañe” hori zer da? Azkuen hiztegiara jo eta han *gaiña* agertzen dala ikusita poztu bere egin nintzan, baina Orotarikoan gauzak ez dira hain argi ikusten eta han aipatzen da horren forma zaharra *adina* bere izan daitekeela. Beraz, lehengotan gagoz, forma hori idatzi ezinean.

- A itsatsiagaz bere hainbak koplak izaten doguz, hor daukaguz:
  1. Berba arruntak: *giltza, katea, eskoa (eskoatara)*...
  2. Herrien izenak: *Mungia/Mungi* (gazteek normalean jod-ik egiten ez dan lekuetan *Mungin* esaten dabe eta zaharrek *Mungien*), *Busturi/Busturidxe* (kasu honetan artikulua da)...

Beste batzuetan ez dakigu zelan eta ez dakigu nondik baina -a itsatsi batzuk agertuten dira, guk kasu bat aitatu dogu: *milloa*. Burutik pasatu bere ez jaku egiten sistema estandarrean hain sartuta dagoan berba batek holango zalantza sortu leikeenik, baina hortxe daukagu.

“bost milloa emon deutsoz/milloa bat emon deutso”

Ahozko forma honeek normal normalak diran arren ez daukie isladarik idatzian, merezi dau mantentzea? -a hori zergaitik agertuten da hor?

Aparteko atala eta agian zehatzagoa beharko leukie aditzaren aspektu ez amaitua markatzen daben-*tuten/-tan* elementuek, baina hori beste bati itxiko deusagu esanez hor bere hainbat eta hainbat duda izaten doguzala. Dana dala, idatzi ahala agertzen dira arazoak eta aitatu doguzanak adibidea baino ez dira.

## ARAZO SEMANTIKOAK

Lexikogintzan gabiltzanontzat zalantza honeek dira interesgarrienak, horregaitik eurok izango dira zabalen aztertuko doguzanak. Hemen arazo nagusi bi bereiztuko doguz, alde batetik, batueraz eta bizkaieraz adiera ezbardina daukien berbak eta bestetik, gazteleratik hartutako berba batzuk.

- Batueraz eta bizkaieraz adiera ezbardina daukien berbak. Orain dala urte batzuk EGAko atariko baten azterketariak hutsunea egoki betetzeko *aurki* berbea aukeratu behar eban, aztertzaileek *aurki* hori *lasteren* sinonimotzat eukien-eta. Baina bizkaitar askorentzat *aurki* barik *antzaren* sinonimoa da eta kexa ugari izan zan urte horretan. Seguru antzean azterketa hori egin eben bizkaitar horreek ez dabe idatiz *aurki antzaren* sinonimo modura erabiliko, baina zergaitik ez?

Holango kasuak asko dira, hasteko aditz batzuk aztertuko doguz:

*sentidu*

*nahia egin*

*gogoan izan*

*lotu*

*bihortu*

1. *Sentitu* aditza askotxu erabiltzen da batueraz eta erderazko “sentir”en parekotzat jotzen dabe, baina hemen, bizkaitarron artean *min emon*, *minduren* sinonimo moduan erabilten dogu askotan:

“itzel sentidu jakon semeak berari hori esan beharra”

“sentidu egin jat, bai, esan deustana”

Batzuetan batuerazko esangura bera eukiko dau baina ez beti, kontestuak esango deusku noz dan bat eta noz bestea, kontestua hiztegia bera baino argigarriagoa izaten da holangoetan, ez dogu ahaztu behar hiztegietan ez dirala esangura guzti-guztiak agertuten.

2. *Nahia egin* ikusita emoten dau batuerazko aditza dogula eta izan bere halan da:

“Ume hark bere nahia egiten du beti.”

Baina ez bakarrik batuerazkoa, geuk bere erabilten dogu, hori bai, guretzat zentzua beste bat da:

“Egin dot nahia, ez dot pastel gehiago gura”

“Edan gura dozun beste, nahia egin arte.”

“Horrek liburuak leiduten nahirik bere ez dau egiten.”

Adibideotan ikusten dogunez, guretzat aditz honen esangurea *asetu* edo *nahikoturena* da eta batzuetan *lo/barre/negar egin* aditzekin batera erabili lei, kasu honeetan *zenbat guræ*ren sinonimo bilakatzen da:

“Egin dozu lo nahia? hamabiak dira eta altxatu zaitetz.”

Forma honen faktitiboa bere oso erabilia da: *nahia eragin* (gogaitu, nazkatu). Adibideotan ikusi ahal izan dogunez, bizi-bizirik dago eta aukera zabala emoten deusku, geure-geurea da, pena da adiera bakarrera mugatzea.

3. *Gogoan izan* aditzagaz pasetan dana ez da hain deigarria, aditz honen kasuan beste zentzun bat baino esangurearen aldaketa edo eboluzioa da. Batueraz eta bizkaieraz bere *gogoratu* esateko erabilten dogu, baina Bizkaiko alde batzuetan esangura hori ezeze beste hau bere hartzen dau:

“Hori gogoan izan dogun hori, Maiteren ama da?”

“Nor dozue ba gogoan, Maite?”

Ikusten dogunez hemen agertuten jakun *gogoan izanen* esangurea ez da *gogoratu aitatu* baino, *aitatu* eta *-ren ganean berba egin*, aditz bi horreen tartean dago beraren esangurea.

4. *Lotu* aditzaren kasua ez da bardin-bardina, hiztegian aditan badogu ikusiko dogu (danetan ez) aditz hau (batuerazko adiera normalenak aparte itxita) *geraturen* sinonimoa bere badala. Dana dala, hau ez da batuerazko hiztegi arruntetan agertzen eta Bizkaiko alde batzuetan, ostera, aditz hori hoxerretarako erabiltzen dogu gehien gehien.

“Ni kantsauta nago eta etxean lotuko naz, zuk egizu gura dozu-na.”

“Zazpiretarako lotu eta ondino ez da agertu, hori bere bada gero lotsabakoa.”

5. Antzekoa pasatzen jaku *bihortu* aditzagaz. Aurreko atal batean aitatu dogunez, batueraz bere erabilten dan arren, guk bizkaitarrok aditz honen adieretariko bat indartu dogu, batueraz gixien erabilten danetariko bat hain zuzen. Eta ez hori bakarrik, aldaketa fonetiko bat bere gehitu deusagu, beraz, sano egiten jaku gogorra ondoko adibideen parekoetan *bihurtu* idaztea:

“bihortu egizu ondo harriko trapua.”

“arropak ondo bihortu barik eskegiten badozuz, gero ura dario-  
la egoten dira.”

“atzamarrak bere bihortuta daukaz, zaharraren zaharragaz.”

“karraderan ibili eta orkatila bihortu egin dau.”

Hiztegiari kasu egin ezkeru, derrigorrean imini behar dogu *bihur-  
tu*, baina gogor egiten jaku, eta ganera kasu batzuetan, azkenengoan  
adibidez, batueraz kasu horretan *bihurtu* barik *bihurritu* erabiliko  
leukie. Beharrezkoa da holangoetan *bihurtu* idaztea?.

Orain artekoak aditzak izan dira baina argi dago **izenak eta adje-  
tiboak** asko bere gehiago dirala eta batzuk politak benetan, aipatu  
dagiguzan bada, interesgarrienetako batzuk:

*erronka*

*zehatz*

*pasadizu*

*kapela*

*zital*

1. *Erronka*ren kasuan guk Mungian daukagun erabilera batueraz-  
ko hiztegieta agertzen bada bere, ez da normalena. Batueraz  
berba hau normalean desafioren parekotzat ematen dabe, guk,  
ostera, esangura hau emoten deusagu:

“zenbat gura etxe eta bazterrak bete milioi daukazala eta, beti  
dabil erronkak botaten”

“Ez dot horregaz batu gura, erronkea baino ez dauka eta.”

“beraren semeak ez dakit ze karrera daukan eta andreak zenbat  
irabazten deutson, hori gizon hori erronka hutsa da.”

“Ogerleko bat bere ez dauka baina joten dau erronkea.”

Adibide honeetan ikusten danez, guretzat *harrokeria*, *handikeria* -  
ren parekoa-edo da.

2. Ez hain diferentea *zehatzen* kasua da. Gure erabilera, seguru antzean, deribazino semantikoa izango da, erabilten dogu bai, batueraz daukan zentzuagaz bere baina askotan holango esaldiak egiten doguz:

“Laurogei urte daukaz baina zehatz-zehatz garbitute eroaten dauz zapatak.”

“Hau ume hau zehatza da, dana eukiten dau garbi eta beraren lekuan.”

“Etxea ondo zehatz dauka.”

Ikusten danez *garbi* edo *txukunen* sinonimoa da guretzat, batuerazko esanguretik nahiko paraje baina ez pare-pareko.

3. *Pasadizu* gazteleratik hartutako berba dogu baina gaur egungo gaztelerak baztertuta daukazan esangureak gorde ditu euskerak. Batueraz *gora-behera* edo *istorioren* sinominotzat hartzen daben bitartean, guretzat erabilera hau da normalena:

“ez naz joango dendara gaurko badaukat pasadizua eta.”

“Aurten gona bat erosteko egon naz, baina zuk emondakoagaz eta honegaz badaukat pasadizua.”

Gitxi gora-behera *nahiko* edo *pasetako beste* esan gura dau, guk normalean euki aditzagaz erabilten dogu.

4. Hurrengo *kapela* da, eta batuerazko hiztegietan begiratzen badogu ikusiko dogu beraren esangura nagusia *txoto* dala eta geuk bere emoten deusagu esangura hori hor daukagu esakune hau: “Joan eta etorri, txapela|kapela gorri.”

Baina horretaz aparte beste erabilera bat bere emoten deusagu:

“Etxebizitza biko kapelea da hori”

“Kapela baten azpian lau familia bizi dira.”

*Teilaturen* parekotzat-edo jo geinke.

5. Eta zerrenda honetan akabukoa *zital* dogu, aurreko puntu batean agertu jaku eta han esan dogun moduan guretzat gehien bat *zirikatzaile* esan gura dau, antzeko zentzua dauka bizkaieraz eta batuaz, baina ez bardin-bardina.

Eta atal hau amaituteko **adberbio eta lotura batzuk** aipatu doguz arin-arin:

*barrez*

*aurki*

*ezean*

*oingo*

1. 2. *Barrez* eta *aurki* aitatu doguz lehen bere eta oraingoan adibide batzuk baino ez doguz gehitu geure erabilera argiago lotu daiten:

“Jose hil ei da. -Bai aurki.

“Estaduan ei dago aurki.”

“Joateko gara, niri neuri, barrez, ez dot bapere ardurarik.”

“Joango naz, bai.(...) alabeagaz Bilbora joateko naz barrez.  
Ezingo naz zugaz joan.”

3. *Ezean* zerrenda honetan sartu dogu baina egia esan onartu behar dogu batuerazko hiztegieta agertzen bada bere, ez dala gehiegi erabilten, normalean *ezezik* erabilten baita. Baina erabilera horretaz aparte agertan jaku forma konposatu batean: *nora - ezean*, hain zuzen bere eta forma hau batueraz bere sano erabilia da. Forma konposatu hau lexikalizatuta dago eta erabilera enklitiko hori esan lei batueraz berba horretara mugatzen dala, bizkaieraz, ostera, elementu hau funtzionalagoa da:

“Batek joateko esan deust, besteak lotzeko, eta orain zetara ezean nago.”

“Hak esan deutsona entzun eta gero, zer esan ezean lotu da.”

“Nora joan ezean dago.”

*Ez dakiela/dakidala*|...ren parekotzat jo geinke eta gero eta gitxia-go eta fosilizatuago erabilten bada bere, oraindik gordetzen dau funtzionaltasuna.

4. Eta azkena *oingo* da. Oingo idatzi dot, neuk bere ez daukat argi *oraingo* edo *oingo* idatzi behar dodan, kasu batzuetan bai, baina adibide honeetan:

“Deitu egiozu, oingo etxean egongo da-eta.”

“Oingo erretirauta bere egongo da, hori gure aitaren edadekoa da-eta.”

Adibide honeen arabera batuerazko *honezkeraren* parekotzat jo geinke eta batueraz ez dau esangura hori hartzen.

Hainbeste kasu dagoz holangoak, zein baino zein interesgarriagoak. Hemen banaka batzuk baino ez doguz jarri, adibide modura nahikoa eretxita.

- Gazteleratik hartutako berbak bere ez deuskue bada burukomin gitxi emoten. Batzuk hiztegian agertuten dira baina asko eta asko ez, eta txarrena, hiztegian agertuten diran parekoak oso arrotz egiten jakuz. Argi dago ezin doguzala idatziz ahoz erabilten ditugun mailegu guztiak erabili, baina batzuetan gazteleratik hartutako berbak ego-kituta daukaguz geure euskerara eta galdetzen deutsaugu geure buruari ze puntutaraino diran baztergarriak berba horreek.

Askotan gazteleraz daukien zentzu bera mantentzen dabe eta arazo nagusia erabiltzeko erabakia izaten da, sano erabaki gogorra baina: *dozena, ziento, trongo, majo, jugoi*... eta holangoak erabiltera ausartzen gara batzuetan arazo ortografikoren bat agertzen bajaku bere. Ostean zer gertauko litzateke holangoakaz:

“horrek asko dira, frailearen dozena baino gehiago” (gazteleraz bere erabilten dala docena del fraile.)

“hagina trongo-trongotik atera eustan.”

“majarik etorri zara gero, jantzi barriagaz.”



Beste batzuetan erabakia lasaiago hartuko genduke gazteleratik eratorritako forma horrek euskeraz erabilera edo forma berezia hartu daualako:

*gobernur.* “horrek ume horrek gobernu faltea dauka.” “Gobernu txarra emoten deutzazue liburu guztiai.”

*panparroi.* “Hau kuadro hau ez jatzu bapere panparroi lotu.”

*plaga.* “hori umea plagea da gero, bururik eragiten deust.”

*pantaloï.* “pantaloiak eta sujetadorak saltzen dabez denda horretan”

*zelo.* “oporretan gugaz etorteko zeloa erakutsi dau.”

*apenas/apanes.* “Alabea apenas etorri da eurokaz, ez ei dira bat”  
(antza ez)

Halan bere, gogorra egiten jaku forma honeek idatziz emotea, gehienak ez diralako idatziz inon agertzen eta lehen esan dogunez, batzuetan ortografiak berak bere hainbat traba iminten deuskuz. Ganera askotan euskerak baditu jatorragoak-edo diran formak eta esan lei holangoetan guztiz baztertuta geratzen jakuzala askorentzat eguneroko diran berbak:

*majo*

*turdidu*

*abrosidu*

*zarrazoi*

*estomangu*

Baina forma guztion artean expresiboak dira bitxienak eta talde horretan badago aitatu beharreko bat: *beinke*. Honen erabilera nahiko zabala da Bizkaian eta *bai gero/horixeren* sinonimo moduan erabilten dogu.

“Motza da gero!.-Beinke!”

Penagarria da holango berba batzuk baztertzea ez diralako euskal jatorriko berbak edo ez daukielako tradizio idatzirik, batzuk oso sar-

tuta dagoz gure eguneroko euskeran eta euren lekua topau dabe, euren matiz berezia. Kontua ez da gaztelerako berba guztiak onartzea baina kontutan izan beharko genduke bahea zein dan eta zertan oinarritzen dan antzeko forma asko eta asko onartu doguz-eta.

## ONDORIOAK

Gatxa edo ezinezkoa da sailkapen osoa egitea, eta gatxagoa erabakiak hartzea, gauza asko hartu behar dira kontutan eta bat konpondu orduko, beste bat agertan da. Baina arazoak asko izanda bere, aberastasuna itzela da eta merezi dau ahalegina egitea.

Ahalegin hori egin ahal izateko eta arazooi aurre egiteko daukagun tresnarik onenetarikoa tradizinoa dogu, geure, bertoko autore klasiakoak; eurek emoten deuskue gehienetan argitu ezin dogun berba horren nondik norakoa. Sarri askotan errezagoa izaten da guretzat gaur egungo ahozko formara jotea eta zuzen zuenean berori imintea, baina kontu handia izan behar dogu holangoetan, ahozko formak batzuetan barri-barriak izaten dira eta ez gaitue itsutu behar. Ahozko formak bahetik pasatu behar doguz, osterantzean, erabilera eta forma zahar eta tradizionalagoak erabili beharrean forma barriagoak, tradizino bakoak erabiliko doguz eta tentazinoa handia da.

Hiztegiek laguntzen deuskue baina ez beti, batzuetan guk behar dogun berba ez da agertzen, beste batzuetan agertu agertzen da baina ez guk gura dogun esangureagaz. Esangureak batzuetan zabalak izaten dira eta beharbada guk gura dogun hori hor dago baina ez erabilten dogun kontestuan, eta horrek aberastasuna kentzen deutso lexikoari, ez da nahikoa esatea berba honek hau esan gura dau, adibideak eta kontestu ezbardinak behar-beharrezkoak dira.

Lexikogintzan gabiltzanok egunero berreskuratzen doguz geure

jardunerako baino ez bada bere, ia erabilten ez doguzan hainbeste berba, ezagutu ezagutzen doguzanak baina hawaitik edo honegaitik erabilten ez doguzanak, eta ikasi bere asko. Penagarria da berba honek ez idaztea, idazten ez badoguz galdu egingo doguz-eta. Lehen esan dogunez, ez deutsegu besteei geurea ezagutzeko aukerarik emongo eta geuk bere galdu egingo dogu, beraz, ahalegintxuren bat egin beharko dogu zeozelan forma horreek forma literariora pasatu eta munduari erakusteko.